


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/01/22) Hurrengo saioa: 2018/02/05	Open eskola deialdia	Deialdi hau guretzako egokia izan daitekeela egotzita, informazio gehiago lortzekotan geratu gara.	
	Parte-hartzea sustatzeko diru laguntza	Diru laguntza hau ondo etorri datorkigukeela pentsatu dugu etorkizuneko Itsaso nolakoa nahi dugun irudikatzen hasteko. Honetarako Siadeco aholkularitzarekin harremanetan jartzea adostu dugu, beraiek gauzatu dezaketen galdetzeko.	Siadecoren bilera urtarrilaren 31n
	Korrika	Korrikako arduradunarekin elkartu gara eta korrika Apirilaren 13an goizeko 9.00 Itsasotik igaroko dela jakinarazi digu. Oraindik prozesuarekin hasi berriak omen daude eta informazio gehiago izan ahala gurekin harremanetan jarriko direla adierazi digu.	
	Zumba/Pilates	Lehendabiziko 3 hilabetekoa egin ostean, zumba eta pilateseko kideak elkartzeko beharra ikusi dugu txandak doitzeko asmoarekin, eta baten bat gehiago animatzen den jakin asmoz.	Otsailak 8rako egingo da deialdia eta herrian zabalduko da

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/01/29) Hurrengo saioa: 2019/02/12	Koplak eta Santa Ageda bezpera	Kopla tailerrean sortutakoak PPT-ean txertatu dira eta falta direnak sortzeko eta irudiak txertatzeko konpromisoa hartu dute bertaratu diren batzuk. Entsaioa ere garrantzitsua dela eta, iganderako egin da hitzordua Udaletxean (11:30etan).	Igandean, entsaio hitzordua Udaletxean 11:30etan
	Diru-laguntzak	- <u>OPEN eskola</u> : eskuratutako informazioa aztertu ondoren, ez aurkeztea erabaki dugu (Erreferentziazko instituzioak Araban daude). - <u>Landaola</u> : Landa garapenaren diru-laguntza honetara aurkezteko bi epe markatzen ditu deialdiak: bata, 2019rako (otsailak 11rako aurkeztu behar) eta bestea, 2020rako (azaroaren 30a artekoa). Ideia desberdinak jaso dira: konpost-gunetarako eta etxean nahi dutenentzat trituradora erostea, 2019rako bertako ekoizleen ikuspegitik,	Proposamenak aztertzen jarraitu eta eskaera zehaztu (2019rako). Landaolako agentziarekin elkar-lanean aritu 2019an zehar, 2020ko proiektuan



		dituzten produktuen eskaintza bateratua egiteko aukerak aztertzea eta beharrak identifikatzea, ikustaraztea eta ezagutzera ematea (azokak, herriko jaietan postua jartzea,...). 2020rako, berriz, herriko produktuen bitartez, bertako ekonomian eragina izan dezaketen estrategiak lantzea, zer produktu bertan ekoiztea nahiko litzatekeen...	sakontzeko.
--	--	---	-------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/01/16) Hurrengo saioa: 2018/01/30)	Udaletxe aurreko obrak	Asfaltatzen bukatzeko bigarren kapa falta da (eguraldi ateriaren zain). Ondoren, forma eta kolorea ematea eta aparkalekuak eta oinezkoentzat espaloia markatzea geratzen da (kolore ezberdinez nabarmenduko da espaloia). Asfaltatutakoan, Ostatura doazen eskailerekin hasiko dira.	Arkitektoak diseinua aurkeztuko du aurretiaz
	Etxebizitzen eskaera (alokairuan)	Etxebizitzaren bat alokairuan hartuko lukeen jendea hurbildu da Udaletxera. Gaiak duen garrantzia aztertu da eta irtenbidea topatzen ahalegindu ere bai.	Plan estrategikoaren barruan etxebizitza politika aztertzen hasi
	Herri bideen egoera	Azkeneko euriteek sortu dituzten luiziak (Altzigarragan, San Lorentzon) identifikatu dira. Gune hauen egoeraren balorazioa egingo da (aparejadorearekin) eta hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.	Egurzaleek egindako kalteen aurrean aparejadorearen laguntzarekin egingo da konponketen jarraipena
	Telefono eta zuntz linea	Kamio-goiko pinudiak ateratzerakoan Itsasotik Kamiora doan linea, postez poste bota eta telefonoa eta fibrarik gabe geratu da Madura aldea.	Movistar konpainiari jakinaraziko zaio